



URKO

(Fot. y texto de «Pakol»)

URKO

Gure bazkuneko mendizaleen artean oitura dan lez, aurten ere Urte Berri eguneko goiz otz eta illunean atera gera etxetik, Urko gañera eldu eta urtearen aurrenengo kirol jaia, ospatutzeko asmoarekin.

Arraterako bide zabalean gora dijoaz mendi lagunak, etengabeko lerroan, Gabonzarreko jan-edan eta jolas alaiak alkar edestuz.

Urkoren tontorra laño illunez ezalita dago, baño, ez dio ajolik; zapalduko degu bein geiagotan.

Uruko zelai gañera elduaz, iparraldetik putz egiten duan aize otz eta zorrotzak ezartzen dizkigu bere azkonak, eta bere bultzadak artuz, asi gera gure mendiaren sorkaldeko aldatz gogorrean gora.

Aizearenak eta gure putzak bat egiñik, eldu gera Etxezarraga jaunak landutako arantzetara, eta ondoren, tontor nagusiko kurutzera. ¡Urko gañean gera!

An batu gera mendizale talde aundi bat, geienok aizebe billa aitz koakorren ostean gordeaz. Bai otza dagola eguna.

Alde guzietara begira eta, danak dira lagunak. An dago betiko «bertsolaria» zarra bere olerki alaiekin.

Begira berriz eta... urtero gurekin izan diran lagun jator batzuk ez ditut arkitzen... nun dira?

Buruez gañetik an agiri da Oiz mendia, odei beltzeko txapelarekin. Anbotoko arkaitz muturrak, Udalaitez, Izarraitz eta beste ainbat eta ainbat mendi, izarra txuriz jantziak dira gaur. ¡A, negua!

Eta itxasoa, gure Kantauri ezikaitza, udaran ain zoragarrizko zelai urdiña, gaur baso itzaltzu bat irudi. Azkonabitza eta Galdaramiño aurrez aurre, or beeko zuloan, gure oñetan, Eibar; gure erriko etxeak Egoren ibar eztuan metatuak dira.

Gorputza jantzietan obeto gorde nairik eta gogoa Euskalerriko mendietan zabalduaz ari naizela, entzun det urtean irrintzi bat eta asi da taldea beruntz, laisterka eta triskaka gazteenak, beste lerro luze bat antolatuaz.

Orain. Uzartzako jatetxeko sukaldean dago elburua. Amaiketako sendo baten ondoren, urte berri zoriontzu bat alkar opa izanaz, jai anaiakor batekin bukatu da gure gaurko egitaraua. Eta or gera, Uruko bidean bera, ebestuz.

Oñak azkar —aldatz bera oi diran bezela— diralarik, nere gogoa goruntz dijoa, galdera eskati onekin: Jauna, izango al gera oraindik urte askoan Urko gañera igotzeko?